

## IDAZKI SAKRATUEN EREDU TA EGITURA BATZUZ EUSKAL IDAZKINTZAN

Txomin PEILLEN

Lehen gizarteak ta oraingoak erkatuz ez dakusagu lehenetan sakratu / profano bereizkuntzarik ez eta txaman / ez txaman kastarik edo ihardunik: badirudi askotan jende bakoitza bere apez ta bere ipuin kontatzailea dela, erritoak eta sinesteak elkarren arteko altxorra izanki, gehiegi espezialisatu gabe. Duela lau edo bost mila urte gizona idazten hasi zen lehenik salerospenak, legeak epigrafiak eta gero idazki sakratuak hala nola lehenbizikoan Indietan, gero Persian, Egipton, Palestinan agertu zirenak.

Erlijio askotan sakratua misterio edo apezan erreserba, Mendebaldeko herri askotan hala nola Galian, debekatu zuten druiden testu sakratuak idaztea, uste baitzuten nahaskeria ta heresia iturri bilaka zitezkeela; horregatik paganismo zahar-reen bi idatz tankerak edo egiturak bereiztea ez da errez, lehen idazki sakratuak kultura osotasun bat bait dira.

Batzutan ordea gure euskal kasua ikusita - eta eresi zahar eta amodio abestietan erabiltzen diren tropo ta egiturak bazter utzita - askotan erlijiozko ez diren testuetan kristau ereduak nasaiki agertzen dira Hori zergatik? Agian idazle gehienak sakonki kristautuak apezgaitegietan egonak, kristau gazteria taldetakoa, apezgaitegietan egona, kristau gazteria taldetakoak izanki ez dituztelako ez ahaztu ez baztertu eredu horiek; gero parre eragiteko moduan erabilera herrikoietik sakarstikora maila ta doinu guztiak badira.

Kristau egitura, baliapide, sinboloak oharkabean edota halananahiz Bibliatik eta Ebanjeliotatik hartuak dira gehienbat. Horri ihes egiteko ez dago bide askorik non ez den Greziako edo Euskal Herriko mitologiaren erabilera, edo era azeptiko baten bilatzea. Egia Nere ustez literaturan ez da zeresanaren berritasuna bilatzen jagoiti baina gauzak nola esan, zer egitura eman, zer tropo edo sinbolo erabili.

Erabilpenaren asmoak, helburuak askotakoak izan ditezke, IX. mendean jadanik fraide arnegatu batzu eta teologia ikasleek latinezko idazki sakratuak ardokanta, erotika abestitan «goillard»ek ematen zituzten, gero ere Rabelais ospetsuak

bere Gargantua ta Pantagruel-en Bibliaren egitura askoz baliatuko da: beraz apez-zen gandik, fraiden gandik sortu da, parodiak egiteko ohitura. Sail hortan testu ezagunena Piarres Lafitteren *Minduria* da zeinean bohamesa batek bere sanarraren heriotza deitoratzen duen. Testu hau *Euskal Alorretik*, J.Haritschelhar-ek eta Ikas taldeak egin bilduman agertu zen eta hor ikusten dugu nola eukaristiaren hitzak parodia diren bohamesaren ahoan; kristau testuak dio bizitzaren ardoa ta ogia dela eukaristia eta gure alarguntsak, berriz:

*Hi hintzen nere ogia, nere arnoa... nere gasna.*

Naski gasna hitzak duelarik irri iharduna hemen. Perpaus hori lau bider errepikatzeak ere otoitz askoren egitura oroitaraz dezake.

Apez ez direnen lumapean eta herrian berean jendeen ahoetan kristau jatorrizko egitura, esaldi eta beste aurkituko dugu.

## 1. Eredu herrikoia

*Otoitzak.* Humoristekin hasteko, edo irri eragiten saiatzen direnekin abiatzeko, herrian, etnografian biltzen hasiko gara, hor adibide ainitz hatzeman bailizateke. Herri literaturan ematen den gehiena otoitz parodia da. Hona Santa Graziako zuberotar pitxiak baina auzo herrietan kontatuak naski; lehenbizikoz Santa Graztar batek gurutzearen señailea egiten duenean esaten du.

«Deabrüen, belagileen ta lamiñen izenean. Halabiz»  
eta etxe-bataioa egitean formula bitxi hau.

«Bateiatzen hait, deabrüen, basajaunen eta lamiñen izenean,  
izan hadin aita bezain haxero (kontrabandista), ama bezain kakero  
(lapurra) Halabiz!

Ave Mari Stella-ren parodiak Iparralde guztian ezagunak dira baina Zuberoran urrutiago doaz. Apezak jakinik nork txerria lapurtu zion, lapurraren semea ordaindu zuen, semeak kanta zezan:

«Ave Mari Stella  
apezaren txerria  
dei Mater Alma  
gure gaziteian da.»

Eta aitak «seme zozoa» ordainduago abes zezan:

«Ave Mari Stella  
aita bortün dago  
· Dei Mater alma  
apez'amarekin lo»

*Epixtolak.* Herri parodietan agertzen zaizkigunak non nahi, eta Zuberoran epixtolak esaten direnak frantsesez «blason» edo «jaun-eskudoak» etxe-eskudoak esaten zaiete. Epixtola horietan herri bakoitza hartuta herritarrei fama bat itsasten zaiete, etiketa baten moduan ipintzen hala nola.

Zorrogorriak Ligiko  
 Higanautak Muntoriko  
 Jinko faltsüak Barkoixeko.  
 Salbaje ta kontrabandista Santa Graziko

Gainera konturatu gara herri askotan, herritarrak beren etiketaz harro direla ta saiatzzen direla, epixtolak dion modura jokatzzen. Halaxe frantses telebistaren aurrean Santa Graziatarrak agertu zirenean, herriko Erretorak aipatu epixtola goretsi zuten eta honela portatzen zirela gaineratuz.

Epixtola hori bitxia da eta Jon Done Petiri, ta Jon Done Paulorenekin erkatuz ez da erretx ikusten hitz horren jatorria, nahiz eta epixtolak «kristautasunaren geografia bat» den Ordeinu Berrian eta gure epixtolak «euskaldunen geografia» bat. Horrez kanpo uste dugu, litania itxura daukatelako kristau deitura bat eman zaietela, baina halatan ere zergatik ez zaiete «litaniak» esan Zuberoan» epixtola» izenaren orde? Orixe-ren etnografia bertsoetatik badakigu Nafarroan *Lectio Epistolae* esaten zitzaiea, zergaitik hala zen irazkindu gabe (ikus). Orixe Euskaldunak, 84-85.orr.) Gero epixtola horietan, Zuberoan protestantismua izan ezik—ez da erlijiorik aipatzen, eta trufatzen bada ere herritarrez, herriaren izenarekin asonantzia edo aliterazioa, edo sasi—etimologia egiteko da (*Aldatz, ipurdi latz; Uitzi, ez arto, ez zitzi* (N.)*Lakarri, lapitz eta harri...*(Z.) Hori ez da araua ordea Larraungo gehiena halaxe badira, Uitzikoak batere.

*Azti-otoitzak.* Nahiz ez duten literatura baliapideekin ikustekorik, otoiz parodia horiek, euskal etnografian ugari dira ta *Pater Noster Txiki* deritzaientzat lekukotasun oso zaharra daukagu Iruñeako katedraleko esku-idazkietan 1425.urtekoa ta Koldo Mitxelenak bere *Textos arcaicos vascos* horretan. Kapitulutxoa 2.2.15.ean luzaro aipatzen du *Oración popular navarra* izenpean.

Hona zer dioen XV. gizaldiko testuak:

«Pater Noster txikia  
 Jeus peretentzia (Jesus penitentzia)  
 lurrak dakar ogia  
 zotzak ardan bustia  
 baradisu menda berde  
 maku onak ard.  
 liburuetan irakurten  
 argizagi eraizeten (piztu egiten)  
 dabilta Jaungoikoa, apostru, maestru Jaun-d...  
 Agnus dei qui tollis peccata mundi, egunean  
 Tello meo (?) garadela zure gomenda(tu)  
 gura (hura) hiruretan d... (diozu?)  
 arima salbatu» (Op. cit. 57-59. orr.)

Holako testuak Azkuek bildu zituen, *Euskaleñaren Yakintza* delakoan, XX. gizaldian, gure testu zaharren argigarri:

«Pater noster txikia  
lurrak dakar ogia,  
txotxak ardo txuria  
Paradisuko gloria.»

Hor bitxiarena da formula zaharraren «*gloriaren*» lekuan «menda berde» aurkitzen, ezen nerretzat *menda* Greziako kulturaren *numphé* baten izena da, jatorriz Mintha, Proserpina bekaitsez lore bihurtua, horregaitik uste zen *menta* *Aphrodite*-ren belarra zela (ik. Hippokratès) baina badakigu belar baretasun emailea dela.

Iruñeko eta hamabostgarren mendeko Aita gurea txikia gure herri-literaturaren jakile zaharrena izan diteke eta jakingarria da irakurtzea nola Aita Joanes Casanave Harigile-k antzeko otoitza hogeigarren gizaldi honetan bildu duen.

«Otoitze saintü hau erraiten edo emanerazten düanak,  
haren arimak ez düke ez hütsik, ez bekatürük  
(*Anuario de Eusko-folklore*, 35 zbk. Donostia, 1989,75.orr.)

Ez da harrigarria guretzat otoitz berdina aurkitzea Santa Grazin, Zuberoan eta Iruñean, ezen Zuberoako herri hortan dagoen edo zegoen komentu zaharra, Nafarroako Leire-ren «alaba» baitzen.

Otoitz honen egiturari begira bi desberdintasun nagusi daude

- a. Iruñekoa Pater Noster dela, ta Santagrazikoa Ave Maria batekin hasten.
- b. Lehen sei lerrotatik landan, Santa Grazikoa fedezko elkarhizketa batekin jarraitzen da Iruñekoak aldiz, erritoak aipatzen: liburu irakurketa, argizai erretzea.

Hasierako berdintasunak nabarmen dira

lurrak dakar ogia (N): lürrak ekarri ogia (Z.)  
zotzak ardan bustia (N.): txotxak ekarri ardu gorria (Z.—)

Horregaitik ez dugu besteetan bilatu, nahiz dakigun Santiago bidean dauden herri askotan holako otoitzak izaten direla hala nola Gaskonian «Pater Noster petit» esaten zaiona J. Salles-Loustaturen arauetz. Paradisuaren aipatzea nabarmena da bertsioguztietan, Iruñean «baradisu menda berde», Azkuek bildu «paradisuko gloria» eta Harigile-k bildu «paradisüko giltzain». Herri-literaturaren kantu ezagun batean «estudiante tunante»na dio:

«Gure Jainkoak egin banindu ni  
zeruetako giltzari  
azken orenean jakingo nuke  
atea nori ideki.....  
eta otoitzean  
Paradüsuko giltzain  
paradüsüan hiru borta (ate)  
hoben hobenetik sar nadila.»

Horiek salatzen digute Erdi Aroan, ez bakarrik eliza ateetako zizel lanetan baina jendeen gogoan paradisuak zeukan lekua.

Hona antzinako olerkien elkarriketarako joera daukan zuberotar otoitza, Aita Joanes-ek bildu zuena:

«Ave Maria txipia  
bost penitentzia:  
lürrak ekarri ogia  
txotxak ekarri ardu gorria.  
Txirrirri mirriri  
Paradüsko giltzain  
Paradüsuan hiru borta;  
hoben hoberenetik sar nadila  
hun(on) gaintikotik jelki (atera)  
ürzo xuria bat gida  
— Urzo xuria, zer dük hor?  
— Olio eta krisma.  
— Aigü arren, bateia nezak.  
— Ezin hait.  
— Zeren ez?  
— Hain ez.  
Bere Seme jaun, esküineko aldean  
ürre giltzak bestaldean  
Argi xuriaz pezatürrik  
ezko xuriz doblatürrik.»

Halere azkenean antzekoak dira:

«argizagi eraizeten: ezko xuriz doblatürrik.»

Badirudi zuberotar otoitza luzeago delarik, erdiko elkarhizketa nafar otoitzetik galdu dela. Biek holako bertsogintza laxoa darabilate, memnoteknia gisa.

Aita Gurea, herri-sendakuntzen erabiltzea bizirik dago 55. urteetako gizon batek, joan den hillabeteen esan dit nola zona edo txingola sendatzen zuen hirur Pater tartekatuz, hirur azti formulekin aztizkoa izanki:

«Mina estekatzen hait (lotzen hait)  
desestaketzen hait  
lürre botatzen hait  
egon hadi hor..»

Frantsesez badaude gaizkigileen Aita Gureak «Notre père des gueux» eta holako trufa otoitzak, baita Agur Mariaren ohore-kantuak hala nola Georges Brassens delakoak idatzi «Je vous Salue Marie» delakoa eta beste.

Beraz esan dezakegu ez dela inoiz ere otoitzaren parodiak egiteko bildurrik izan, ez debekurik ere, ezen beharbada pentsatzen zuten agintariak, parodiak egitea sinestearen bizirik iraute seinale zela. Hor ageri dena eta literaturan ere

aurki ditekeena da «hiru» zenbakiaren beharrezkotasuna, zatitu ezinezkoa baita, hirukoitasuna Jainkoarena gogoratzen duelako, horregatik aztikeriatik urrunago ta erlijiotik hurbilago diren otoitzak ere hiru bider esan behar dira, ogiaren ta ardoaren aipamena gabe:

Aita eternoa lotara noa. San Juan korupean. Ikusi dozu neure semea? Bai, andrea, ikusi dot eskuak eta oinak untzez (iltzez) yosirik, burua bere (ere) arantzaz koroaturik. Egunean iru bidar au esaten dabenak, *eztauko infernurako bide-rik*. «Ipiña Zeanurin) (R. M. Azkue, *Euskaleñiaren Yakintza*, IV. alea, Espasa Calpe, 1977.9. orr.)

XV.mendeko otoitzak zion bai paradisuko bideari eta honek, ez infernura-ko, bideari. Leku berdinean bildu zuen Azkuek bigarren formularen gisako «be-tiko gloria» ere.

## 2. Idazleen parodiak

Ustegabeko edo gorespenezko parodiak eta aipamenak bazter utzita irribar-rea sortzeko parodia gutxi aurki genezake euskal idazkietan Aita Lafitte-ren hori ikusi dugu, eta agian balizateke gehiago topatzeko idazle horrek eman dituen testu hoberenetan, esan nahi dut ipuinetan, oso ona baitzen gai horietan. Nero-nek aspaldian *Igela*-n saildu bizitza baten pastichea egin nuen, XVII. mendeko zuberoraz zen idazki erotiko traketsa. *Jon Dane Aqherrune* sailduaz, umeak mirariz egiten zituenaz.

Gai honi lotzera eroan nauena ez da bakarrik aspaldian kristau kutsuko ereduak ugari direla euskal literaturan kontu hartzeak, baina legortea zela ta az-ken martxo honetan honelako parodia itsusia egin nuelako.

«Odei Gurea, zeruetan zaudena, busti bedi zure  
hegala, etor bedi zure zaparrada, egin beza  
euria zeruan bezala, lurrean ere.  
Eman zaguzu eguneroko euria eta ez  
gaitzazula utz legortean erortzera, baina  
egarritik aska gaitzazu. Halabiz!»

Beraz, Pater Noster txikien iturria ez da agortua, ez eta gure etxe ondoko urbegia, ezen hau idazten ari naizela egun guztian, goizetik arratsera, euria, «jaits ahala» egin baitu. Auzoko andreak esango zuen — hitzaren indarraz sinesle — «Ez aipa jinaraziko beitzü.

*Gatu Beltza* delakoan Cervantes-i ta Rabelais-eri Bibliari bezainbeste zor dizkiet, hartan agertzen diren Girgirimao gatuaren *genealogiak*.

Gehienetan, olerkigintzan da otoitzaren eragina ikusten, eta bereziki azken hogeitamar urte hortan, bertsolarien ereduetatik ateratu nahi zirenen artean lita-niaren erabilera sartu zaigu. Iparraldean behintzat bi eragin haundi izan dira, kantautore poetak alde batetik eta kristau gazteria ta eskutismoaren abestiak bes-

etik. Hasieran, errate baterako Jacques Brel flamendarrak, litaniadun kantuak egiten zituen, eta apur bat sentimentalak orduan «L'abbé Brel», Brel apez gaitzizena eman zitzaion eta idatz tankera ta gai horiek osoki utzirik, izena galdu baina denbora berean «Sor Sonrisa» edo Soeur Sourire serora abesten hasi zen, kristau gazteriak errepikatu behar zituen abestiak: modu hortako kantuek, agian, dute gure literaturan, Iparraldean ta Nafarroan litaniaren moda sartu.

Ez dut erran nahi litania edo errepikapena ez dela erritmoa sortzeko bide bat, baina bide labaina, leuna ta zirristagarria bai. Hortatik erori gabe ateratu zaigun hoberena Patxi Perurena Loiarte lizateke, baina bere *Joannesd'Iraolaren poema bilduma* delakoan berrixetan du formula «Neskarik gazteena» olerkian (Zure aurpegia, Zure begiak., Zure ezpainak, Zure ahoa ta abar) edo hitz batean mugatzen, ez perpaus batean (ikus «Hiretzat», hitz hori, bertso osoaren hasieran agertzen baita) Beste bizpahirur poemen izenburuak, hitz-litaniadun horrekin eginak dira.

Agian litania txar usaina ematen dieten elementuak ez dira tankeratik baina esanguratik etortzen, sentimentalkerien esateko erabiltzen direnean egitura horiek, ezen Joseba Sarrionandiak idatzi zuen moduan, «sendimendu hoberenekin literatura txarra egin baiditeke». Iparraldean bertso gintzan ibili diren hasiberrien akats haundiena izan da, formaren ta gaiaren arteko egokitasun eza. Bai, kristau ereduak ere erabili ditezke baina ez nola nahi, eta eraberrituz: errepikatzen den hitza testuan garrantzitsuena bada, bestelan erreztasuna da, baliapidekeria.

Konprometitutako olerkigintzan ere litania ager ditekete, baina hori ez da meza-bezperetan ikasia, manifestaldietan baizik, azken horietan perpaus berdinarren errepikapena baita taldeari bere indarra edo berotasuna ematen diona. Kanean oihukatzen diren aliterazioz betetako perpaus asko olerkietara igaro dira. Nahiz arrazoin ezberdinak izan Elizan eta kanean, beharbada, errepikapenak jendeen gogoan bere eragina izan dezake. Politika litaniak Gabriel Arestiren obra batzutan eta Blas Oteroren olerkietan agertu ziren noizpait.

### 3. Bibliaren antzeko edo egiturazko testua

Nik nabarmenenik ikusi dudana eta egillea izkutatu ez duena Patri Urkizuren *Zeren azken finean* agertzen da, poemaren hasieran Genesis bat badagoelako eta azkenean apokalipsis-a, hau Ordeinu Berritik hartua, naski. Ez herri-apokalipsiak ez Urkizurenak ez dute Jon Done Johanek idatzitakoaren beldurrik:

«—Y si alguno quitare de las palabras del libro de esta profecia, Dios quitará su parte «del libro de la vida» y de «la santa ciudad» y de las cosas que están escritas en este libro» (Cipriano de Valera-ren itzulpena, 1602, 22. 19)

Beharbada kasu horretan ez amiltzeko, eta infernurako bidearen ez hartzeko, P. Urkizu-k Apokalipsi zati baten itzultzen hasten da baina parodiaren aldapa irristakorrean, 20k. 19-20-21. emanda, azken bi bertsoek ez dute munduaren azkenarekin deusik ikusteko:

«Eta zerurean pizti deabru hegaldun bat iragan zen  
Eta bonba bat jaurtikirik oro hauts, huts bilakatu zen»  
(Op. cit. 7-8. orr.)

Bitxiena da ez duela genesisia hastapenean eta gero apokalipsia azkenean eman, baina biak elkarren ondotik, orthodoxiatik urrunduz. Ez da hortan bukatzen poema horren Biblia parodia, ezen poemaren lehen sei kantuak halakoak baitira; ikus ditzagun beste lauak:

—*Oi Paradisu galdu eder hura!* (9/ orr.)

*Uholdea* (10. orr.)

*Babel* (11. orr.)

*Sugea* (12. orr.)

Azken hiru kantuetan oraingotasunaren gatz, atz puntaka ematen du, olerkariak, parodia gogortuegi gabe:

«eta pertsonak oro hil ziren,  
helikopterotara igo ez ziren beste guztiak.»  
(*Uholdea*, 10. orr.)

Berdin Babel izenburuko olerkian, Babel dorrea eraiki baino lehen lurzabal guztia euskaraz hitzegile zela dio, antzinako apologia egileez trufatuz:

«Eta eternalak esan zuen:  
horra  
badakit poblua dela zoriotsua  
hizkuntza batez elkar aditzen direla,  
euskaraz diharduela..»

.....  
(*Babel*, II. orr.)

Hemen Patri Urkizu-k ez du Biblia ondo jarraitzen ezen Jehovah-ren ahoan ipintzen baitu gure gizaldietako balore bat Antzinate zahar haietan gogoetan ez zegoena «zoriona»; huna zer dioen Bibliak konparaketa egiteko, lerro hautsietan jarri dudalarik:

Ta Jehovahk esan zuen:

«Horra  
populua bat da  
ta horiek guztiek hizkuntza bakarra daukate

.....  
eta hasi dira eraikuntzan  
eta egitea pentsatu duten hortatik  
gibeltzera inork ez ditu eragingo»  
(*Gen. II, 6*)



Beraz olerkariak testu horren eta ondokoaren parafrasi askeak egiten ditu olerkariak:

<p><i>Eta memento hartatik lur guzien gainean iendeak barreiaturik</i> (Op. cit. <i>Babel</i>, II. orr.)</p>	<p><i>Halan Jehovahk hortik lurzabal guztiaren gainean barreiaturik</i> (Genesis, II, 8)</p>
--	--

*Sugea* olerkian bi irudi etortzen zaizkio gogora olerkariari Edeneko paratze hartako «pozoin segetua», baina gaurko abertzale talde baten ikurrekoa:

*ezin minaren osagarria,  
euskaldunentzat dadila  
odol-pozoin  
maitegarria.*  
(Op. cit. 12. orr)

#### 4. Ebanjelioaren antzeko testuak: Kristoren pasioa

Testu honekin hasten gara ukapenaren parodiekin *Maldan behera* Gabriel Arestiaren olerki epikoa da. Dakizutenez 21 zati edo kantu dituen poema honek bi zati ditu. Lehenean olerkaria hamar olerkien bideetatik **euskal kristau** eta mistikoen ikasbidetatik doa, kantuek izenburu bezala, daukatela, Lizardian, Loramendian, Iratzederrean, Anabitartean. Eta *maldan behera* jausten delarik du olerkariak bere kalbariobidea hartzen, ezen hamaikagarren kantuan gurutziltzaten baitute Jone bere maitearekin.

Lehen zati honetan kristautasuna da eredu, eta gurutziltzaten den Jone olerkariaren siniste edo Musa zaharra. *Olerkaria hiltzen eta piztu egiten, iniziapen* ospakizun gertaera batean bezala. Olerkia ez da hortan bukatzen eta izenburuak behar zukean, agian esan *...ta maldan gora*, ezen kristau bideak utzirik olerkaria beste bidetatik baitoa. Kristoren pasio parodia egitea, iniziapen baten adierazteko, beharbada jatorrizko esangura zaharrari itzultzea lizateke. Bai olerkaria berpiztu egiten denean, beste norbait da eta bizitzak beste norabiderik ba-  
du, harentzat.

#### 5. Bibliaren alderantzizkoa: Genesi berria

Kasu horretan —Patri Urkizuz bestelako bidetik Joseba Zulaikak Adan euskaldun, eta oraingotar europar baten kondaira ematen digu, gogoaren kondaira alegia. Poema luze hortan, *iniziapena* hasieratik dago, gizon berria baita Adan, paradisu-  
tik urruntzean delako, berè neke ta minekin, aske baita. Bestalde, handik urruntzean Jainkoa zazpigarren egunean, kreatzen du, Genesisa alderantzituz ta halaxe gizona bera Jainkotzen. Ez da hortan geratzen kristautasuna behin eta berriro aipatuko da azkenean ukatzeko.

Ez dut zerurik  
 Ez dut parkerik  
 Ez dut Jainkorik.

Baina ez gabiltza ideiez, literatura baliapideez baizik eta olerkariaren pentsaerak azaldu gabe esan dazagun Joseba Zulaikak ez duela litanien beldurrik nahiz eraberrituta darabilan edo gorago ikusi bezala olerkiko hitz nagusiaren azpimarratzeko. Halan idazten du gogo hitza hamar bider errepikatzen baina ez leku berdinetan litania usaina kenduz:

sentipen sakratuzko gogo garbia

.....  
 gogoa sortu zen

.....  
 gizonaren gogoa

Adanen gogoa

Kristau egitura daukan kantua, naski, *Adanen otoitza* da.

Nire gogoaren ahalmen guztiz

Nire buruaren argi guztiz

Nire animaren indar guztiz

Nire bihotzaren maitasun guztiz

maite zaituet.

Eta otoitz hau Adanek Lurrari ta Bizitzari zuzentzen diete. Bai parodia zerbait legoke ere, ezen kristauak esaten badu, «zergatik dira lurreko aberastasun guztiak, geroko paradisua galtzen badut» «Zer da lur honetako bizitza betikotasunari konparatuz»? Eta Adanek, berriz:

Nire heriotzea

paradisuko eternidadea baino ederrago da.

(*Jainkoren oroitza*)

## 6. Pello Zabaletaren kristau aitortpena

Oraingo mundu usteldu honetaz, bai diruak usteldu lurzabalaz badu non keskatu kristau den batek ere, eta Biblian ez da ezezkor garaien irudirik eskaz, horregaitik *Bi poema et' erdi* bilduman gure olerkari etsituak bere giltzak Bibliatik hartzen ditu; Laugarren zatian Ez Herri delakoan, izenburuaren azpian, aipamen hau jartzen digu:

Eta amatu eta seme batez erdi zen.

Eta Jaunak erran zioen Oseeri:

Deith zazu Ez-ene populua.

(Oseas I, 8-8-9) (aip. lib. 89. orr.)

Gure gizarte txepel, zoriongale, errez zale, zenbakitua, erakusten digu: ez herria baina populu artaldea bezala erabilia, hilen goraipamenaz askiesten duena

konzientzia, eta hortaz dihardu eta Peteren printzipioaz alegia ez dela argiena, jakintsuena, gaiena, goiko postuetan jartzen, askotan, alderantziz baizik, hola bukatzen da Ez-Herri I. Gero bigarren zatitxoan Ez-HERRI II delakoaren izenburuan, Bibliako aipamen hau:

Madarikatua gizona bere sinestea  
gizonaren gainean duena (Jeremias, 17,5)  
(aip, lib. 107 o.)

Eta hor sartzen gara giza banakoaren, argazki hitsean, etiko ordenean behetik gora eta Peter en printzipioak goian ipini dituenen iritziak herriaren iritziaren ondotik dator.. Halere profeten aipamenekin ere Pello-k ez du inori irakasbiderik erakusten, erakusten duena da gure herri honen egoera etsigarria.. Azken zatitxoan epigrama ta arregura delakoan Infernuan sartzen gara Danteren aipamen ospetsuarekin *Hona etorriok; gal, itxaropen oro* (Dante, Infernu)

Eta infernu hori sasi-balorez baldosaturia da, sasi-bakea, sasizoriona benetako menpetasun baten sari, gero parodia batekin bukatzen «menpekoen patroin ta zaindari». Hemen mundutar ideologia porrot guztien erdainua ageri da.

## 7. Jon Miranderen ukapena

Litania ez da Jon Miranderen *Euskaldun zintzoen baladan*, olerkigintza bakuneko baliapidea baina olerkiak / kristautasunaren azpi-produktuak gaitzesten dituelari, errepika moduan dio, pagan oihu batean:

«Ortzi jaunak zaint nazala»!

hori ahapaldi bakoitzean, berdin eta hor Zulaika ta Lete baino urrutiago joanez, bere *Josu ben Jose* edo bigarren aldaeran *Josu bar Joseph* delakoan ahapaldi bakoitzean, litania moduan biresaten du *Ohizko Jainkoari* olerkian, Kristori *sekulakoak zuzenduz*.

Beraz dakusagunez kristau ereduak oharkabea, halanahiz eta neutroki, edo parre eragiteko erabili badira, ukapenezko ta hausturazko parodiak ere izan dira euskaraz eredu, egitura berdina erabiltzen zituztenak. Ezinbestekoa bada, non-baitikan hartutako ereduak gureganatzea erran dezagun, gure idazleek aski xotilki ta nabarmenki, jakin dutela euskal kutsuarekin egiten eta guretartzen, aitorzaleek, fededunek bezain ongi Aresti, Lete, Mirande baliatu dira, otoiz eta idazki sakratuez, agian, neri gertatzen zaidan bezala sinesten es duten batzuk, kristau asko baino gehiago Biblia irakurtzen dutelako; nere lehenbiziko Biblia hain zuzen Jon Mirandek eman zidan — gatzelaniaz da— eta Leizarragaren itzulpenak ere badauzkat, uste baitut ezin dela oraino urte askotan literaturarik ulertu, liburu horiek eta grekolatindarren literaturak irakurri gabe, eta sinbologia mundukorren traktatu bat eskupean eduki gabe.

Askotan esan da, Biblia europar literatura guztien eredura izan dela. Hain urrun joan gabe — eta mistikoak bazter utzita ezen Salomonen maitasun abestia

parodiatu duten, askotan, oharkabeen, — euskal literaturan behintzat eragin hori nabarmena da, baina beste literatura askotan ez hainbeste, hala nola Iparralde-runtz goazalarik Islandiara, Irlandara; gainera alegiak — nahiz beren didaktika xedeekin erlijiotik hurbil izan — Esoporen gandik hartu ditugu eta harek Aintziñateko Inditar kulturean, Kristo baino mila bat urte idatzi zirenak. Ipuinetan ere, nahiz Boccaccio, nahiz Cervantes, edota Nafarroako Margarita *Mila ta bat gaueko* ipuinen eragin beroaren pean loretu dituzte berenak.

Gero, idazleak garbiki giltza ematen ez digularik ez gara ibiliko bibliko sailkatzen, hasieran jaiotza bat ta azkenean kataklismo bat daukaten eleberri guztiak, ezen Biblia ere giza erdikoikeriaz, eta giza bizitzaren eredura egina baita, jaiotza, haurtzaroa, gaztaro traketsa, bizitzaren gorabeherak, maitasuna, heriotza dariotela, gainera, apokalipsia ez dago Biblian ordeinu berrian baizik.

Idazlanetan holako egitura orokorrak aurkitzea ez da harrigarri etnologia egiten dugunean holakoak ugari dira alegia, munduaren sortzea, gizona nondik datorren baita herri-apokalipsiak ere, eta hor kristau ta pagano ereduak nahasian letorzke. Alabaina, euskal literaturan — Biblian ere jatorrizko zirenez galdetu gabe — konturatu behar genuke gure eredu batzu zuzenka idazki sakratuetatik datozela, gero Grekerak zer eragin izan duen horietan ez da nere gaia, hortaz Alfontso Irigoyenek lan sakonagoa egin baitu eta estilistika ihardunaldietan Gernikan 1988.an irakurri.